

## AMVISAKo edateko ura, bermatutako kalitatea

Gasteizen etxeb etxe ur iragazkiak (fitroak) saltzen dabilen enpresa bat dago, edateko ura barra omen dela esanez, herritarrei iruzur egin nahi die, iragazki horiek beharrezkoak ez direlako.

AMVISAK zein Udaleko Osasun Publikoaren Zerbitzuak jakinarazi nahi dute hori guztia gezurra dela eta saltzeko asmoz egiten ari diren publicitate horrek ezin duela ur hornikuntza-aren kalitatea kolokan jarri, ezta udal langileen lan ona ere.

Berriro ere, AMVISAK gure uraren kalitatea bermatuta dagoela adierazi nahi dugu, Europar Batasunak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen dituelako. Eta inolako zalantzarik ez egoteko, egiten ditugun tratamendu eta kontrolen informazio zehatza emango dizuegu.

2004tik aurrera, AMVISAK hornitzen dituen 53 herritako edateko uraren **Kontrol eta Zaintza Unitatea** dauka. Horretarako, badago **banaketa-aren kalitatearen kontrola, kudeaketa eta zaintzaren urteko programa**. Programa honek ur arrikuak saihestea eta hornitutako uraren kalitate gorena bermatzea du helburu gisa, indarrean dagoen araudiarekin bat: 140/03 Errege Dekretua, Eusko Jaurilaritzako 178/02 Dekretua eta EAEko banaketaren Kontrola eta Zaintza Programak Burutzeko Jarraibideak.

Hori guztia aurrera eraman ahal izateko, **Egiaztatze Erakunde Nazionalak (ENAC) kreditatutako berezko laborategia dauka ISO 17025 legearen arabera**. Laborategian, urteko bi auditoria egiten dira (bat kanpoko enpresa batek egiten du eta bestea ENACEk) eta bertan aztertutakoaren emaitzak guztiz fidagarriak dira. Emaitza horiek astero Osasun Sailera bidaltzen dira EKUIS (Kontsumorako Uren Informazio Sistema) sistema informatikoaren bidez eta [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) webgunean ikusi daiteke. AMVSAren memoria jarduerak urteko zehar aztertutako parametroen batez besteko baloreei dagozkien datuak ere biltzen ditu.

**Kontrolak egunero honako tokitan egiten dira: bilketetan (Uribarri, Gorbea, Albina), ur garbitzeetan, biltegien irteeran, Gasteizko 32 laginketa puntu estrategikotan eta AMVISA Kontrola eta Zaintza Unitate moduan aritzen den Administrazio Batzarretako 36 puntutan.** Urtero 2.300 lagin baino gehiago aztertzen dira, 44 parametro kimikoren eta 7 parametro mikrobiologikoren kontzentrazioak behatuz.

Araudiak eskatzen duenaz gain, Arakako EUAn prebentziozko zaintza berezia egiten da honako hauek kontrolatzeko:

- Ur edangarriaren kalitatean aldaketak sortaraz ditzaketen metal nabarmenenen bilakaera (burdina eta magnesioa) eta mikroalgena eta hauen toxina.
- Protozoo patogeno eta zebra muskuluairen larba edo helduen presentzia.
- Erradioaktibitatearen, fungiziden eta pestiziden existentzia.




Dastatez panelen bidez, ur edangarriaren usain eta zaporearen analisiak ere egiten dira. Astean behin gutxienez (40 eta 50 panel inguru) eta horietan adin, baldintza eta sexu ezberdineko 6 pertsonak hartzen dute parte nobreare borondatea.

Kontrol horietatik jasotako emaitzak kontuan izanda, AMVISAKo Tratamendu eta Kalitate Sailak, Produktzio Arloari zuzendutako konsignetan beharrezkoak diren aldaketak egiten ditu.

Informazio gehiago: [www.amvisa.org](http://www.amvisa.org)

Ura edangarri bihurtzeko zenbait fase ikus daitezke. Horietan, hainbat konposatu eta erreaktiboak erabiltzen dira, besteak beste:

- Ozonoa, urtegietatik datorren ur gordineko materia organikoak ezabatzeko.
- Kloroa, desinfektatzaile moduan.
- Sodio Hidroxidoa, pH-a orekatzeko eta ura hain agresibo eta sarkorra izan ez dadin.
- Aluminio polikloratua, uretan dauden solidoen dekantazioa eta ezabatzea erazten duen koagulatzaile moduan. Beterie, arezko fitroen bitartez eginiko uraren gardentzea bete baino lehen.
- Fluorua, Osasunak eskatuta eta tratamendua bete ahal izateko eta banbarra ez agertzeko.



*Ur botilatuko bakoitzeko euro bati esker, sareko ureko 1.500 litro baino gehiago izan ditzakegu osasun berme ororekin... eta ontzi hondakinik sortu gabe*

**IRADOKIZUNEN BAT EGIN NAHI DIGUZU, EDO IRITZIA EMAN?**

Posta elektronikoz egin dezakezu. Hauex da helbidea: [info@amvisa-futura.org](mailto:info@amvisa-futura.org)